

Hasi daitezela gosearen jokoak euskal langile autonomoentzat

Apirilaren 17an Iñigo Urkullu lehendakariak autonomoei laguntzeko iragarritako Eusko Jaurlaritzaren neurriak ezagutzeko irrikan geunden.

Zoritxarrez ikusmin horrek oso gutxi iraun zuen, harriduraz eta suminduraz jakin baitugu Euskadin autonomoentzako laguntzen gehikuntza hori 7.000 pertsona ingururentzat iritsiko dela.

Aupa-Euskadik ez du ulertzen nola jokutzen duten gurekin behin eta berriz. Orain, 3 milioi euroko hasierako partida irrigarri hura 13 milioi eurotan handitu dute. Hala ere, oso eskasa da kanpoan geratuko diren pertsonen kopurua dela eta.

Euskadin, 170.000 pertsonak baino gehiagok egiten dute lan beren kontura; horietatik 60.000 pertsonari jarduera-uztea onartu zitzaienten, eta beste asko ez zituen Alarma Egoerak itxi, baina ez zuten euro bakar bat ere kobratu ahal izan. Kontuak aterako ditugu?

Gauza berera itzultzen gara, eta ez gara nekatuko esaten, horrela ez dela inora joango, laguntza horiek ez dutela konponduko gure negozioetan dugun benetako arazoa.

Gehien behar dutenak ezin direla laguntza horietatik kanpo geratu; badakigu pertsona batzuek gizarte-segurantza ordaintzeari utzi behar izan diotela jan ahal izateko, eta horrek automatikoki baztertu egiten dituela Administrazio Publikoarekin zor bat izateagatik.

Ez duela zentzurik lokalaren alokairua ordaintzeko laguntza bat emateak, errazagoa izango litzatekeelako lonjako jabeak zenbateko hori zuzenean administrazioari erreklamatzeari, behar izanez gero.



S.L. bat sortzen duten autonomoak ezin direla laguntzetatik kanpo geratu.

Laguntzak orain behar ditugula, ezin dugula hilabeterik itxaron, burokraziak ito egiten gaituela eta beharbada iristen direnerako gure negozioak hilda egongo direla.

Jarri harremanetan Aupa Euskadi/Autonomoak Ekintzarako Elkarrekin elkartearekin:

infoaupaeuskadi@gmail.com

Ainara 685255249

Juncal 669465668